

EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOKO FEDERAZIO LIZENTZIEN ARAUTEGIA

1. Artikulua– Federazio lizentzien izaera eta eraginak.

1.– Euskadiko Triatloi Federazioak emandako eta dagozkion federazio lurraldeek bideratutako federazio lizentzia izaera pertsonal eta besterenezina duen agiria izango da, bere titularrari bi federaziotako, lurraldekoa eta Euskadikoa, kidearen egoera emango diona eta lehiaketa ofizialetan parte hartzea ahalbidetuko dio, betiere horiek zuzenduko dituzten arauen arabera.

2.–Federazio lizentzia bakarra da eta bere titularraren aldetik adskripzio bikoitz automatikoa suposatuko du triatloiaren eta kirol konbinatuen lurralde eta Euskadiko federaziorako.

3.– Triatloiaren eta kirol konbinatuen lurralde eta Euskadiko federaziotako pertsona fisikoen eta juridikoen integrazioa dagozkion lizentzia ematearen bidez egingo da.

4.– Euskadiko Triatloi Federazioak emandako lizentziek bere titularrak, dagozkion autonomiaz haraindiko federazioak balioztatutako ala homologatutako maila goreneko lehiaketetan parte hartzeko ahalbidetuko ditu.

2. Artikulua– Federazio lizentziak bideratzea eta ematea.

1.– Euskadiko Triatloi Federazioa eta triatloi eta kirol konbinatuen lurralde federazioak Autonomia Erkidegoko eskumeneko erakundeak izango dira emateko eta bideratzeko, hurrenez hurren, federazio lizentziak.

2.– Euskadiko Triatloi Federazioaren eskumena izango da:

- a) Federazio lizentzien erregimen dokumental, deportibo eta ekonomikoa ezartzea, bere eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta.
- b) Federazio lizentziaren iraupena eta indarrean jartzeko data finkatzea.
- c) Kategoriak ezartzea.
- d) Dagozkion kuotak ezartzea, ekitaldi bakoitzerako batzordeko saioan onartuko direnak.
- e) Arriskuen derrigorrezko estaldurak bermatuko dituzten aseguru kolektiboak kontratatzea.
- f) Federazio lizentzien lorpenerako, formaturako eta horiekin lotutako gainerako auzi analogoetarako prozedura finkatzea.

3.– Lurraldeko triatloi eta kirol konbinatuen federazioek ezin izango dute lizentzien izapidea Euskadiko Triatloi Federazioak aurreikusitakoekiko kuota gehigarriekin zergapetu, zein autonomiako eta Euskadiko federazioaren arteko

banaketan esleitutako portzentajeekiko ala kuotekiko ezberdinak izango liratekeen.

4.– Lurraldeko triatloi eta kirol konbinatuen kirol federazioak lizentziak bideratzeko eskumena duten erakundeak izango dira eta funtzio horrek barne hartuko ditu, besteren artean, ondorengo ahalmenak:

- a) Federatu nahi dutenak federazio lizentzien eskakizunen eta eraginen inguruan informatzea.
- b) Federazio afiliatorako beharrezko agiriak eta datuak jasotzea.
- c) Lizentzien zenbateko osoa kobratzea eta zenbateko hori arautegi honetan eta dagozkion arauetan aurreikusitakoaren arabera likidatzea.

3. Artikulua– Lizentzien formatua eta edukia.

1.– Lizentzien formatua eta edukia Euskadiko Triatloi Federazioak onartuko ditu, eta euskarrian derrigorrez Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2.– Lizentziaren agiri fisikoan ala euskarrian garbi kontsignatuko dira ondorengo kontzeptu ekonomikoak:

- a) Osasun laguntzaren derrigorrezko aseguruaren kuota, titularraren osasunerako arriskuak, erantzukizun zibilekoak eta heriotzagatik zein galera anatomikoengatik eta funtzionalengatik eginiko indemnitazioak estaliko dituenak.
- b) Euskadiko Triatloi Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzera bideratutako kuota.
- c) Lurraldeko Triatloi eta kirol konbinatuen federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzera bideratutako kuota.
- d) Kuota, bere kasuan, lurralde maila goreneko lehiaketetan parte hartzeko, hau da, autonomiaz haraindiko federazioen aldetik autonomia lizentzia balioztatzeko ala homologatzeko.

3.– Lizentziaren agirian garbi kontsignatuko dira halaber ondorengo edukiak:

- a) Lizentzia Euskadiko Triatloi Federazioak ematen duela.
- b) Lizentziaren iraupena.
- c) Pertsona titularraren izena eta abizenak.
- d) Pertsona titularraren jaiotza-data.
- e) Kirol diziplina ala diziplinak.
- f) Bere kasuan, titularrari dagokion kirol erakundea.

- g) Estamentua
- h) Federazio igorlearen Presidentearen sinadura, edota hark espresuki eskuordetuko lukeenarena.
- i) Euskadiko Triatloi Federazioaren zigilua.

4. Artikulua– Pertsona fisikoentzako arriskuen estaldura.

1.– Pertsona fisikoen federazio lizentzia bakoitzari aseguru bat dagokio bermatuko duena, gutxienez, ondorengo arriskuen estaldura:

- a) Erantzukizun zibila.
- b) Galera anatomiko ala funtzionalen edota heriotzaren kasuetako indemnizazioa.
- c) Osasun sistema publikoan doako estaldura izango ez luketen kasu eta eremu haietarako osasun laguntza, titularrak kontingentziak beste aseguru baten bidez estali ez dituenean.

2.– Aurreko atalean adierazitako aseguruaren prestazioak izan beharko dira, gutxienez, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak, zeinen bidez erabakiko diren estatu eremuko lehiaketa federatuetarako edota horiek aplikatu ahal izango liratekeen arautegiko beste xedapen batzuetako Derrigorrezko Kirol Aseguruaren gutxieneko prestazioak.

3.– Kirol denboraldi bakoitzaren hasieran, Euskadiko Triatloi Federazioak Eusko Jaurlaritzako Kiroletako Zuzendaritzara igorriko du, haren ezagutzarako eta dagozkion xedeetarako, hitzartuko liratekeen polizen erlazioa eta horien baldintzen kopiak, zeinetan bermatutako estaldurak eta prestazioak zehaztuko diren.

5. Artikulua– Iraupena.

1.- Euskadiko Triatloi Federazioak emandako lizentziak urtebeteko iraupena izango du.

2.- Euskadiko Triatloi Federazioak emandako federazio lizentzia lortzeko xedeetarako, denboraldi bakoitza urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasiko da.

6. Artikulua– Lizentzien bateragarritasuna.

1.– Pertsona berdinak EHSF-k estamentu ezberdinetarako emandako federazio lizentzia bat baino gehiago izan ahal ditu erabilgarri.

2.– Inolako kasutan ez da onartuko pertsona fisiko berdinak erabilgarri izatea aldi berean Euskadiko Triatloi Federazioak emandako federazio lizentzia kirol klub ala talde ezberdinak ordezkatzeko edota horietako bat independente modura eta bestea ala besteak kirol klub ala talde ezberdinak ordezkatzeko.

7. Artikulua– Aurretiko osasun azterketa.

Federazio lizentzia bideratzeko beharrezkoa izango da dagokion gaitasunaren osasun azterketa, arautegiaren arabera eta xedapen horietan ezarriko diren baldintzen arabera erabakiko denari jarraiki.

8. Artikulua– Izaera arautua.

Lizentzien emateak izaera arautua izango du; ezin izango da hura ukatu eskatzaileak hura lortzeko beharrezko baldintzak betetzen dituenean.

9. Artikulua– Lizentziak bideratzeko eta emateko betebeharra.

1.– Lurraldeko federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioa behartuta daude bideratzera eta ematera, edota ukatzera, dagozkien lizentziak gehieneko hilabeteko epean, behar bezala formalizatutako bere eskaerarekiko hurrengo egunetik kontaktuta.

2.- Espresuki adieraziko da Euskadiko Triatloi Federazioko lizentzia federazioa ukatzeko arrazoia izango dela, erakunde horrekin zorrak izatea, aurretiko ekitaldietako lizentziak eskuratzearekin lotutako kopuruen ordainketaren ingurukoak. Kasu horietan, ezinbestekoa izango da Euskadiko Triatloi Federazioko federazio lizentzia eskuratzeko, zorpetutako kopuruen ordainketak erregulatzea. Adierazitakoa lurraldeko triatloi eta kirol konbinatuen federazioekin izan litezkeen balizko zorretara hedatu ahal izango da.

3.– Eskatutako lizentzia emateko ebazpena espresuki lehen aipaturiko hilabeteko epean jakinarazten ez bada, hura emana izan dela ulertuko da.

4.– Aurreko atalen inguruko lizentzien ematea ala bideratzea espresuki ukatzen denean, hori arrazoituta egin beharko da, edota hori justifikatzeko agiria entregatzea ukatzen denean, errekurtsioa jarri ahal izango da kirolen arloko eskumeneko Zuzendaritzaren aurrean, dagokion Foru Aldundikoa ala Eusko

Jaurlaritzakoa, zazpi egun naturalen epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen gora jotzeko errekurtsorako ezarritako erregimenaren arabera.

5.– Euskadiko Triatloi Federazioko zuzendariak zeinek, justifikatu gabe aurreko ataletan aipatutako federazio lizentziak ez dituzten emango, epean eskaerak borondatez ebatziko edota emango ez dituztenek, espresuki ala ustezko moduan, iruzurra eginez, erantzuleak izango dira eta dagokien zigorra jasan ahal izango dute, eratorri ahal izango litzatekeen erantzukizun zibilarari zein zibilarari utzi gabe. Halaber erantzuleak izango dira lurralde federaziotako zuzendariak justifikaziorik gabe dagozkien lizentziak bideratzeari uko egingo diotenak.

10. Artikulua– Eskumeneko administrazio publikotan eginiko lizentzien jakinarazpena.

1.– Eusko Jaurlaritzak sarbide zuzena eta iraunkorra izango du, komunikazioaren teknologia berrien bidez, Euskadiko Triatloi Federazioak emandako federazio lizentzietara. Foru Aldundiek bere Lurralde Historikoari dagozkion federazio lizentzietara soilik izango dute sarbidea. Komunikazio horren baldintza teknikoak eta bere edukia arautegiaren arabera erabakiko dira.

2.– Federazio lizentzietako datu pertsonalen inguruko jasotzea, tratamendua, ematea eta edonolako jarduera analogo, datuen babeserako arloan indarrean dauden xedapenekin egokituko dira.

11. Artikulua– Federaziotako kideen eskubideak.

Federazioko estamentuetako kideek gutxienez ondorengo eskubideak izango dituzte:

- a) Federazio organotan ordezkaritza izatea eta horiek ezartzea, aplikagarria den arauaren araberrako moduan, baldintzetan eta proportzioan.
- b) Federazioak antolatuko dituen jarduera guztietan parte hartzea, hark horren inguruan adinduko dituen arauen arabera.
- c) Indarrean dagoen arautegian aurreikusitako terminotan, dagokien federazioaren inguruko behar bezainbat informazio jasotzea.
- d) Federazio arauak bete daitezen eskatzeko federazio organoetara joatea.
- e) Federazioko arauen arabera egokiak liratekeen kontsultak eta erreklamazioak egitea.

f) Federazio lizentziaren egiaztagiria erabilgarri izatea.

12. Artikulua– Federaziotako kideen betebeharrak.

Federazio estamentuetako kideek, estatutuetan horren inguruan erantsi ahal izango litzatekeena alde batera utzita, ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- a) Ezartzen diren kuotak ordaintzea.
- b) Federazio organoek adostutako hitzarmen guztiak betetzea, betiere eskumeneko organoak ezeztatzen ala bertan behera uzten ez dituenean.
- c) Federazioaren helburuak lortzerakoan eraginkortasunez kolaboratzea.
- d) Bere kasuan beteko lituzketen lotutako betebeharrak leialtasunez betetzea.
- e) Kirol lehiaketetan parte hartzeko edota horiek prestatzeko Euskadiko eta lurralde selekziotako deialdietara joatea.

13. Artikulua- Lizentzia motak.

1.- Euskadiko Triatloi Federazioak emandako lizentziak ondorengo estamentuetakoak izan ahal dira:

- a) Kirol Klubak / Taldeak.
- b) Kirolariak.
- c) Teknikariak.
- d) Epaileak – Arbitroak.
- e) Antolatzaileak.

2.- Kirolariak federazio lizentziak independente bezala eskuratu ahal izango dituzte, hau da, lotuta egon gabe, federazio xedeetarako, Euskadiko Triatloi Federazioarekin adskribitutako klubarekin ala taldearekin. Hori hala izanik, denboraldi batean lizentzia independente bezala eskuratuko lukeen kirolari bat kirol klub /talde horretakoa izan ahal da federazio xedeetarako; eskaera hori Euskadiko Triatloi Federazioari eta dagokion lurralde federazioari egin ahal izango zaio, eta hark onartu egin beharko du kirolariak erakundearekin eginiko adskripzio hori. Hala ere, kontzeptu honetan aurreikusitakoa taldeen ala klubaren sailkapenetako kirolarien integrazioaren eta puntuazioaren inguruko xedapen erregulatuak zehatzak espresuki ezarri ahal izango dituzten lehiaketa federatu ofizialen erregulazioari utzi gabe ulertuko da.

14. Artikulua- Kategoriak.

1.- Dagozkien arautegi erregulatzailen arabera zuzenduko diren Euskadiko Triatloi Federazioaren eta lurraldeko triatloi eta kirol konbinatuen lehiaketetan ezarritako kategoriei utzi gabe, Euskadiko Triatloi Federazioko kirolarientzako lizentzien kategoriak ondorengoak izango dira:

- Kadete.
- Junior.
- Sub-23.
- Senior.
- Beteranoa.

2.- Aipaturiko kategorietako adina zenbatzeko indarrean dagoen denboraldian kirolaren jaiotza urtea kontsideratuko da, eta ez da kontsideratuko lizentzia eskatzerakoan ala ematerakoan izango lukeen adina.

15. Artikulua- Federazio zirkularrak

Arautegi honetan aurreikusitakoaren garapenerako Euskadiko Triatloi Federazioak emandako lizentziak eskuratzearekin lotutako alderdi guztiak, dagozkien informazio zirkularren bidez jorratuko dira.

Izpta. Presidentea

Izpta. Idazkaria